


...eta Kitto!

EIBARKO UDALA. EUSKARA BATZORDEA

Eibarko auto saltzaileak

Azken boladan salmenta onak euki arren orain kezkatu




Egunero bonbardeatzen gaituzte komunikabideen poderioz edozein motako kotxeak erostera. Erraztasunak ugariak dira eta gai honetaz zertxobait ezagutzeko Eibarren kokatzen diren auto-kontzesionario ezberdinetara abiatu gara. Krisi ekonomikoaz gaindituta badirudi ere sektore guztiak bezala urte latzak jasan izan beharra zutenik gaur egun egoera onerantz badoa ere. Dena den, kontzesionario guztietara jo badugu ere RENAULT-eko datuen jabe egitea ezinezkoa egin zaigu.

Badago bai aukera ederra eroslearentzat berebil bat eskuratu nahi badu eta horretarako prest ditugu saltzaile guztiak nahiz eta salmenten kopuruetan alde nabarmenak izan urteko une batetan edo bestetan.

Uda izaten ohi da urtearen unerik erakargarriena auto batetaz jabe egiteko edo horrela dirudi horretaz ados agertu bait ziren kontzesionario ezberdinetako salmenta saileetako arduradun guztiak. Arrazoiak ez dira zehatzak baina badirudi jendea udara partez beroa dela eta, oporrak hurbiltzen direla eta errazago animatzen dela kotxea erostera. Aldiz iraila eta otsaila dituzte hilabete beltzak, salmenta kopurua nabarmenki beherantz egiten duelarik abuztuaren eragina gainditu ezinik. Beste edozein sektore ekonomikoetan bezala krisiaren ondorioak pairatu zituzten, urte beltzak igaro zituztelarik gaur egun egoera guztiz ezberdina delarik, lehenengo urteko salmenten kopuruen datuek horrela adierazten bait dute.

Aurtengo datuek diotenez salmentak ederki badoaz ere Jose Manuel Mendazona Peugeot-Talboteko salmenta arduradunak esan zigunez «hemendik aurrera egoera guztiz aldatuko da, honen arrazoia Solchagaren neurri ekonomikoak bait dira». Neurri hoiak banketxeek krediturik ez ematean eta ematen direnak izugarriko interesetan isladatzen dira, hala ere etorkizunari begira baikor agertzen zen. Ez genuen ordea jakin izan ea gaur egun edo orain dela bost urte kotxeak garestiagoak diren eta PEUGEOTEko arduradunak gaur egun autoak garestiagoak direla adierazi bazigun ere SEATEkoak alderantzizkoa aipatu zigun bata eta bestearen ikuspegia honetaz guztiz kontrajarria suertatu delarik.



Artikulu hau gauzterakoan harritu gintuena zera izan zen, lana egiteko era, hain zuzen ere, urtean zehar garai ezberdinetako auto salmenta kopuru minimo bat asigmatzen zaielarik, kotxe saltzeko beharrean aurkitzen direla.

Auto modeloetaz hitzegiteko kontzesionario ezberdinetara abiatu ginen gorabehera guztiak jakiteko asmoz. J. M. Mendazonak Peugeot-eko arduradunak esan zigunez 405 modelo da auto-marka honen kotxe izarra da, pertsona helduak erosten dutelarik, 205 modelo aldiz gazte jendearentzat zuzendua dago. Nieves E. CITROENgo salmenta nagusiak zera esan zigun; BX GTI modelo gazte jendeak erosten duela, AX ere gazteek gustokoa dutelarik. Frantziar produktuen aurkako BOIKOTA dela eta ondorioak pairatu dituzte eta salmenten kopuruetan argi nabarmendu zaie. Gaur egun eredu berriaren zain aurkitzen dira XM delakoa CXaren ordezkoa.


FORDEko Alberto Soraluzek datu hauek eskeini zizkigun; gama txikia dute salduenak, Fiesta Escort eta Orion alegia. SIERRA Escorpio ereduak jende heldua eta egoera ekonomiko lasaian bizi direnentzat zuzendua daudelarik. SEATEko Pedro Solanok berriz, GOLF eta IBIZA dituztela kotxe salduenak, Diesel motako autoak ere ondo

saltzen dituzte eta honen arrazoia kontsumo murriztuan oinarritzen da.

Azkenik jakinmin handia genuen eza zergatik sortzen diren 100 mila pza.ko murrizketa kanpaina hoiak

kotxeak erosterakoan eta argi azaldu zigutenez arrazoi xume bat dago hori gertatuko.

«Kotxea saldu ezin denean, horrelakoak asmatu behar»...



Objetatuz Zerbitzu Zibila bete behar

Udaleko Kultura Departamentuak kontzientzia eragozpenari buruzko informazio-bulegoa antolatu du, bulego hau Udaletxeko arkupeetan kokaturik dagoelarik.

Kultura Saileko arduraduna den Ignacio Lopez de Aguietarako adierazi digunez: «Informazio bulego hau Eibarko Udalak Euskal Herriko eta Nafarroako Gazte Kontseiluekin eta Diputazio ezberdinekin antolatu du, bere helburua soldaduzkara joan behar direnei informazioa eskeintzea izanik.

Bulego hau Abenduaren 22rarte irekita egongo da, astelehen, asteazken eta ostiralean, arratsaldeko 4etatik, 6etara».


Argi dago, objezioa egitea eskubide bat dela, nahiz eta sektore batzuk eskubide hau ilunpean mantentzen saiatzen diren, begibistakoak diren arrasoak direla eta. Gaur egun eskubide hau bai nazioarteko mailan (ONU, Europar Parlamentua) bai Espainiako Konstituzioan agertzen da. Esan behar dugu, hala ere, Konstituzioan agertzen den lege hau (1984. urtekoa) oso kritikatu dela, batez ere nahi eta nahiezko erreklutamendua mantentzen duelako.

Nor izan daiteke eragozle? Behar militarrei lotutako edozein pertsona, «arrazoi erlijiosoak, etikoak, humanitarioak, filosofiko antzekoengatik» zerbitzu militarrekin ados ez dagoena.

Objezio eskubidea soldaduzka baino lehenago edo gero erabil daiteke, baina ez bitartean. Eskaria soldaduzkara joan baino 2 hilabete lehenago bete behar da. Objekatuz nahi duenak KONTZIENTZIA OBJEZIORAKO NAZIONAL KONTSEILARITZARA joan behar du, eta organu honek erabakiko du eragozlea DEN edo EZ. Eragozletzat hartua bada, zerbitzu militarra egin beharrean ORDEZKO ZERBITZU ZIBILA egitera behartuta egongo da.

Esan beharra dago, Ordezko Zerbitzu Zibila badituela bere eragozpenak edo puntu beltzak; Zerbitzu Militarra baino luzeagoa da Ordezko Zerbitzu Zibila. Bestalde, eragozlearen onspena instituzio estatal baten bidez. Azkenik, Zerbitzu Zibileko plazen %100.a. Babesgo Zibila edo Osasun Zerbitzu Sozialaren arlokoak dira (bai bata bai bestea azpiegitura militarrekoak direlarik).

Kontzientzi eragozpean mundu osoko arazo bat da eta gero eta nazio gehienetan ematen ari da. (Argentina, Hegoafrika, Sobiet Batasuna, Polonia...). Herri batzuetan, Mendebaldeko European batez



ere, masamugimendu mailalara heldu da (Ad; RFA-n 65.000 pertsona inguruk egiten dute objezioa urtero). Beste herrialde batzuk, ordea, ez dute onesten. Greziak adibidez ez du eskubidea errespetatzen, 25.000 gazteen exilioa sortaraziz azken urteetan.

IRAKURLEAREN TXOKOA

Adiskide zintzook!!

Badakit jakin hainbat eta hainbat zorion dei jaso dituzuela azken aldi honetan zuen aldizkari polit eta txukun hori hilerro-hilerro kalera ateratzen saiatzen ari zaretelako. Ari, eta gainera, eta gaur egun, horrelakoak euskaraz egitea ez da ez gauko aunitzaren estula.

Baina laga dezagun bazter batera euskararen kontu hori, betikoa da eta hasperturik nauka: zuei aurrera jarrai ezazuten esateko irrika bizian banago da «gauza normalak» geure hizkuntza normalean argitaratzen dituzuelako, maketazioa benetan dotorea delako, edozein tokitan lasai asko irakurri daitekeelako leloaren-lelo, panfletarioan erori gabe...

Musuak ematea ez omen da geure izatearen zer horietariko bat, baina, nik, hemendik, Eibarzulo honetatik, zuei mila musu emateko eskubidea errebindikatzen dut!

ALBAKUA

SARIKETA

Ba al dakizu non dagoen argazkien agertzen den irudia? Beno hori hala bada eta IKUSONIKek oparituko duen diska irabazi nahi baduzu bidal ezazu eskutitz bat (pertsonako bat onartuko da bakarrik helbide honetara zeure datuak eta telefonoa emanez!

**EIBARKO UDALA
EUSKARA ZERBITZUA
«... eta Kitto Sariketa»**

9. Aleko sariketaren erantzuna «Legarre Kalean dago. Nagusien Egoitza. SARITUA: AMAIA EIZAGAETXEBERRIA. R. Galdos Kalean bizi dena. HURRENGO SARIKETARAKO AZOAREN 15ERAKO BIDALI BEHAR DIRA ERANTZUNAK. SORTE ON!!!

IKUSONIK

Euskal Musika

1. Mikel Laboa: Hamabi
2. Joselu Anaiak: Jaraiaitak Jaliskora
3. Anje Duhalde: Nahas Mahas
4. Oskorri: Datorrena Datorrela

DISKA SALDUENAK

Bestelakoak

1. Duncan Dhu: Autobiografia
2. Liza Minelli: Result
3. Tracy Chapman: Cross Roads
4. Mecano: Descanso Dominical

Zuhaitza edo farola?

Munduan izaten dira bitxikeria asko: batzuk etxeak egiten erakusten dute beren trebetasuna, beste batzuk ordea ongi margotzeko gaitasuna daukate, eskultura arloan ere baditugu gure herri hontan ondo moldatzen direnak. Hitz batetan esanda, artea beti arte izaten da eta bere forma eta kolore ezberdinen bitartez gauza berri edo zaharrak ikusi edo sentitzeko aukera izaten dugu. Horrelako gauza berriak Eibarren ere baditugula aitortu beharra dago, artea dela? txapuza dela? dena dela ere zer dela esango zenuke zuhaitz bat farola baten erditik gora zuhaitza dela ikusiko bazenu eta beste erdia burdinezko farola? Hori da Eibarren daukaguna, Untzagako enparantzan bertan, korreosetako posta kutxaren ondo-ondoan.



Aldazabal II.na, primerako pelotarixa

Beste gauza asko dakaguzen moduan, esan bihar da Eibarren pelotian arluan be ez garela anka bakarrak eta badakagula Eibarren txapeldun oso osokua. Oinguan Aldazabal IIgarrenarekin egon gara berbetan eta pelotian gainian zeozer gehitxuo kontatzeko asmuakin gatoz «...eta kitto»-ko irakurliengana.

Noiz hasi ziñan edo zelan?

«Hasi?... Ba... ba daroiadaz hamasei urte profesional, aurretik afizionauetan beste lau urte eñ da. Eibarren bertan hasi nitzan. Lelengo anaia hasi zan, ta gero nik ba... ikusi, ba... zelan jokatzen zeban eta... afiziñua hortik sartu jatan. Ta horixe, hamairu urte nittuela ia eh... jubenilletan jokatzen ta hamazortzi urtekin profesional. Ondiokan anaiak eta bixok jokatzen dogu».

Ta zer? Bixok ibiltzen zarie parejaka ala?

«Parejaka lenao jokatu genduzen partidu batzuk, oiñ dala sei-zazpi bat urte edo... jokatu genduzen. Eztakitt ba... igual eh... hamar bat partidu edo holan bixok; baiña... bestelan: bixok atzelarixak gara. Harek be atzetik jokatzen dau ta nik be bai ta... parejatan bestelan eh... sekulan bez. Oiñ, orduan izan zan epoka bat ondo ibili giñana bixok, harek aurretik ta nik atzelari jokatzen genduan».

Ta bakarrik ez dozu jokatzen edo... beti parejaka edo... zelan?

Bakarrik lenao ibiltzen nitzan, baiña gaizki ibiltzen nitzan orduan; nerbioso ibiltzen nitzan da... ta... ba holantxe. Nekatu be gehixao eitten da, baiña... gero zelan izaten dan bakarrik jokatzen danian eh... kanpeonatua, kanpeonatura juten zara... ezta-kitt ba, nerbiosuao edo... zer gehixaokin».

Zuk txapelketia be irabazi zenduan, ezta?

«Bueno, txapelketia, irabazi genduan guk eh... Retegi I-ak eta nik eh... oiñ dala... izango dia... eztakitt zenbat urte dian. Eh... hau zan —Empresas Unidas— txapelketia, hau Bitorixan izan zan.

Ta gero eh... Espainiako beste kanpeonatuan, bi-birritara, bi bider allegau nitzan finalera eta bi-

xetan galdu eñ neban finala ta... subkanpeoia gelditxu nitzan, bi bider gelditxu nitzan subkanpeoi».

Eta hain gora allegau ta... goraiño ez zaranian allegatzen: zer sentitzen da? ze... beti gura izaten da lelengua izatia, ezta?

«Ah!!... bai!! baiña... bakizu ba: gaur danak nahi dabe lelenak izatia ta... ara!! tokatzen dana lena bada ondo, ta bestela ba...».

Afiziño haundixa dao pelotara Euskal Herritxik kanpora, edo zer?

«Bai bueno... hor eh... Riojan afiziño handixa dao, ta Soria aldian be bai ta... Segovia ta Salamanca aldian be badao. Oiñ eh... udan partidu mordua izaten dia ta... pasatzen dana han da ba urtian behin bakarrik jokatzen dela partidua, jaixak diranian. Ta orduan ba... jentiak zelan eztaben aukera askorik izaten juateko ba... jente gehixago juaten da».

- «Afiziñua anaia jokatzen ikusi ta sartu jatan»
- «Empresas Unidas-en txapelketia Retegi I ahin irabazi neban»
- «Ni primeran nabil oiñ arte, baina hemendik aurrera»

Eibarren bertan afiziñua zelan ikusten dozu?

«Afiziñua azkenengo sei urte honetan asko bajau da; bai, bai, jentia gitxiao dator oiñ frontoira».

Pelotarixetan ekonomikamente diferentzixia handixa izaten da?

«Bai, bai. Profesionetan bertan egoten da alde haundixa. Ze klaro, profesionalak ba hiru kategorixakuak dia: primera, segunda eta terzera. Ta primeratik terzerara alde handixa dao. Ni primeran nabil oiñarte baiña... oiñ eh... hemendik aurrera ba... ia be-



Aldazabal IIa urte batzuk gitxia gokin

heruntz, pixnaka-pixnaka ia behera».

Frontoian zer da hobia: trukuak jakitzia ala bizkorra izatia?

xia eñ, aldia etaratzen dabe pelotak; humedadia egon edo ziku egon... aldia egoten da!!

Ta gero ba... partidu normaletan egoten dia lau pelota zestuan, enpresiak inpintzeittu lau pelota, ta handik, tantua eitten danian batek, berak hartzeittu. Pisuan aldia gramo bikua izaten da, oiñ, batzuk izaten dia motelauak eta beste batzuk bizixauak».

Ze urtetaraiño izaten dau pelotarixak jokatzen segitzeko topia gitxi gora-bera?

«Ba hori... ze urtetaraiño?... berak al daben arte !!Batzuk igual eh... segitzen dabe berrogetahiru-berrogetalau urterarte, beste batzuk igual eh... lenao laga bihar. Hori be... segun, jakina: bakotxa zelakua dan, zelan zaintzen dan da zelako bizimodua dakan».

Zure semia pelotari izatia gustauko jatzun?

«Neskia da. Ezin izan, ezin da izan. ez. Neskak paletan edo raketan bai, tenisian be bai... baiña pelotan ez dabe eitten».

«Afiziñua azkenengo sei urte honetan asko bajau da; bai, bai, jentia gitxiao dator oiñ frontoira».

VINOS OROZ

EDARI BANAKETA

Tfn.: 11.11.50 EIBAR

GIZONENDAKO MODA
SASTRERIA

Astigarraga

Bidebarrieta 8
Tf. 11.22.23

Comercial ETESA

BULEGO-MATERIALA-ALTZARIAK
BIDEBARRIETA, 66
TELEFONO 121973-74
20000 EIBAR GIPUZKOA

GARAJE GARCIA

Austin Rover
Zerbitzua

— Fundidores
— Bidebarrieta 39
Telf.: 11.22.14 / 11.02.83

Mujika HARATEGIA

Odolosteak Txorizoak
Bildots eta Txahal
Bidebarrieta, 12
Urkizu, 18 - Telf 120194

GURBIL

Pizzeria Italiana
isasi kalea, 1
Eibar Tf. 111152

EHIZA

Urtero sasoi honetako eztabaida

- **DIANA:** 900 bazkide izatetik orain dela urte batzu 400 gara orain.
- **Iñazio Lapazaran:** Legea betetzen ez dutenentzat zigorra 10.000 pezetatik 50.000.000 milioirainokoa izan daiteke.
- **Joseba Cabezon:** Gipuzkoan 30.000 ehiztari daude batzuk afizionatuak eta besteak eskopeteroak. Hauek kontsolatzeko 6 lagun.

Eibarren ehizarako zaletasuna edo afiziñua oso handia izan da beti, askok eta askok daukate eskopeta bat etxean, nahiz eta gaur egun ez erabili.

Zaletasun honen zergatia herrian bertan aurki dezakegu: Eibar estatuko arma fabrikatzaile garrantzitsuenetarikoa bat izan da. Hala eta guztiz, zaletasun hau jeitsiz dijoa urtetik urtera; garbi ikus dezakegu hau lizentzia kopuruan, baita **DIANA** elkarteko bazkide edo sozio kopuruan: 900 bazkide izatetik orain dela urte batzuk, gaur egun 400 besterik ez dira. Zergatik? beharbada jendearen kontzientzia, edo krisialdia, ... nork daki. Ehizak gastu demasa suposatzen duela argi dago: eskopeta (20.000 tik gora), lizentzia (1.300 pta), segurua (1.800 pta), errekonozimendu medikua, ... Beraz, ehiza, neanderthal garaian bizitzeko beharrezkoa izatetik, gutxi batzuen esku dagoen joku bat izatera iritsi da.

DIANA elkartekoek esan digutenez «ehizarako epea irailaren 8-an hasi zen zenbait probintzitan (hamalautan, hioen artean Gipuzkoa) eta otsailaren 4-rarte iraungo du. Hilabete hauetan lehiaketak antolatzen ditugu, bai ehizan eta bai arrantzan. Horretarako guk geuk erosten ditugu bai txoriak eta bai arrainen arraultzak (azken hauek piszi-faktoria baten zainduz 62m-ko amurruak hazi arte)».

Euskal Herrian ez da ia ia ehizarik geratzen. Ehiztari gehienak kanpora dijoaz: Burgos aldera, Palentzia ingurura, ... Eskasia hau kutsadurak sortutakoa da, baita ehiztariak eragindakoa. **Inaxio Lapazaren**ek Gipuzkoako ehiza federazioko presidentea delakoak, esan digunez «ehiztariak kontrolatzeko lege batzuk

badaude, espezie batzuen ehiza mugatuz, beste batzuen debeatuz, etab. autonomia bakoitzak bere legeak ditu, bakoitzean desberdinak, ondorioz EH-tik kanpo ehizan ibili nahi dutenek lege hauek ikasi behar dituzte, baita autonomi bakoitzean lizentzia desberdinak atera, hamazazpi guztira. Legea betetzen ez dutenentzat zigorra 10.000 pta-tik 50 milioirainokoa izan daiteke».

Lege guzti hauek betetzen diren ala ez galdetu diezaiokegu geure buruari. **DIANA** Elkartekoek diotenez legeak guztiz betetzen dira. Baina alderantzizko eritziak ere jaso ditugu. **Joseba Cabezon**-ena adibidez, **Kattagorri taldekoa** izandakoa. Honen ustez «legea ez da inola ere betetzen. Kotoetan untxiak, galeperrak, etab hartzen dituzte, eta honek ez du problema latzik sortzen, baina espezie hoiek ugari eukitzeko ehiztariak zepoz eta pozoiez betetzen dute kotoa. Horrela txorien arraultzak, untxiak, etab, jaten dituzten animaliak harrapatzeko, honen ondorioz hilketa demasak sortuz.

Orain dela gutxi Nafarroan horrelako kasu bat izan dugu, animalia babestuen tranpetan jausiz. Gipuzkoan 30.000 ehiztari daude. Batzuren ustez bi mota bereiz daitezke, afiziagatik dabilzanak, eta eskopeteroak. Azken hauek edozerri egiten diote tiro, eta nahiko da hauek gutxi batzuk tiroka ibiltzea izadiari kalte konponezinak sortzeko. Gainera egoera nahiko tamalgaria da: Gipuzkoa osoko ehiztariak kontrolatzeko sei zaintzaile besterik ez daukagu».

Bukatu du esanaz «ehiztariak argumentatzen badute ehizean afizioagatik dabilzala edo disfrutatzen egiten dutela, ni ehiztaria ez naizenez eskubidea daukat animalietaz disfrutatzen. beraz, etika arazo bat da».

ZURE ERITZIA EHIZAREN GAINEAN



Peio Astigarraga. 24 urte. Dantzaria

«Kasu batzutan komenigarria ikusten dut ehiza, batez ere animalia mota batzuk soberan daudenean. Hauek erditik kendu ezker toki gehiago egongo litzateke eskasian dauden animalientzat. Bestaldetik Eibarren gai honek arazo larriak sor ditzake, eskopetak herri bertan egiten bait ditugu».




Marisa eta Frantzisko. Dendaria eta funtzionarioa

«Gai honi buruz guztiz kontrakoak gara, eta horren aurrean zerbait egin behar dela uste dugu». Marisak dioenez «eskerrak Frantzisko ehiztaria ez dela, bestela...».



Elena. 21 urte. Ikaslea

«Gai hau oso erlatiboa da niretzat, egi esan ehiza bost axola zait, jendeak nahi duena egin dezala, ehizan ibili nahi badu ibili dadila».



Timoteo Karrasko. 17 urte. Arrainsaltzailea

«Ez nago ehizaren kontra, neurrian egin ezker, Animalia mota batzuen kopurua gutxitzen dijoa, desagerutzeko arriskuan daudelarik. Hauek hiltzea debeatua egon beharko litzateke».



Maider, Mirian eta Olatz. Ikasleak.

«Txoriak horrela hiltzea oso gogorra iruditzen zaigu, gainera txoriak eta animalia guztiak oso politak dira».

Karmen Larreta. 71 urte. Etxekoandrea

«Txoriak asko maite ditut nik, penagarria da batzuen kapritxoagaitik horrela animaliak hiltzea».

Rikardo Idegi. 62 urte. Jubilatua

«Nahiz eta ehiztaria ez izan ongi iruditzen zait nahi dutenak ehizan ibiltzea. Zaletasuna edo afiziñua dakenak egin dezaketela nahi dutena. Gaur egun jai daukate ehiztariak, ez bait dago ehizarik».

AGENDA

Azaroa

• UDAL KULTURA SAILA

Indalezio Ojanguren II Argazki Lehiaketa:
4an: Sari banaketa
4tik - 19ra: Erakusketa Udaletzeko Kultur Aretoa
12an: Eibarko I Artisautza Feria. Untzagan.
14tik - 19ra: LIBURU AZOKA. Untzagan.
29rarte: «EIBARKO HIRIA» V IPUIN LEHIAKETA. Lanak aurkezteko epea.

• SAN ANDRES JAIK

25an: Santa Cecilia Eguneko kalejira: Musika Banda eta txistulariek.
28 eta 29an: VII Nazioarteko txotxongiloen Jaialdia.
29an: DELIRIUM TREMENS. Kontzertoa
30an: SAN ANDRES AZOKA. Egun guztian zehar trikitalari, Bertsolari, Herri kirolak, Nekazal Azokarekin batera izango dira.
25tik - Abenduaren 3ra: EXFIBAR 89 XX Erakusketa. Arrate Filateli Taldeak antolatutik. Udaletzeko Kultura Aretoa.

• ARGAZKI ERAKUSKETA

27tik - Abenduaren 11ra: Urrian egindako «ARGAZKI RALLY»aren ARGAZKI ERAKUSKETA. C. Deportiboko Argazki Taldeak antolatutik. L.K.A.aren Erakustokian.

• KONTZERTUAK EIBARREN

1an: Arrats. 8an. Unibertsitate Laboralean: ALSTERPATZEN Haurren Korrala.
4an: Arrats. 8an. Amaña Zineman. CANTEMUS KOROA (Vilnius, Lituania)
5an: Arrats. 8an: Amaña Zineman. SZEKSZARDI MADRIGAL-CORUS (Hungria)

• MENDI IBILALDIA / IRTEERAK

25an: Atxarte-Urkola-Barazar Mendatea. C. Deportiboko Mendi Taldeak antolatutik.

• UDALETXEKO EUSKARA BATZORDEAK

antolatuta A.K.M.aren babespean

IKASTAROTXOAK

• TXALAPARTA

Hasiera: Azaroaren 6an. Amaiera: Abenduaren 19an. Astelehena eta Asteartez 19etatik 21etara. KULTURALEAN. Irakaslea: Jesus Elorza.

• AUTOAREN OINARRIZKO MANTENIMENDUA

Hasiera: Azaroaren 2an. Amaiera: Abenduaren 21ean. Astelehena eta Ostegunez 7,30etatik 9etara. JUAN ANTONIO GISASOLA KALEAN. Irakaslea: Rikardo Sologaitua.

Oharrak: Izen-ematea: UDALETXEKO EUSKARA ZERBITZUAN. Matrikula: 1.000.- pezeta. Izen emateko epea. Azaroaren 2ra arte. TALDE OSO MUGATUAK IZANGO DIRA.

• AUDIOBISUALAK

ARRIKUTZ haitzuloko ibilbideari buruz. Angel GONZALE-Zek egina. Urriaren 26an. Arrats. 7etan.
INDIARI buruzko diapositiba emankizuna. Egilea Antxon GUTIERREZ. Azaroaren 9an: Arratsal. 7etan Udaletxean.
EUSKAL HERRIAKO ohitura bitxi eta berriak. Xabier JUANESek egina. Azaroaren 23an Arrats. 7etan Udaletxean.

• INGURUGIROARI buruzko IHARDUNALDIK

Azaroak 6: Astelehena. «Ingurugiroaren baliatzailea». Hizlaria: Mikel Reguero.
Azaroak 7: «Garapen sozio-ekonomikoa eta ingurugiroaren nardura». Hizlaria: Elena Egorrola.
Azaroak 9: Asteazkena: «Osasuna, bizi-kalitatea eta ingurugiroa». Hizlaria: Eukeni Olabarrieta.
Azaroak 10: Ostirala: «Erakundeek eta agente sozialek ingurugiroaren arazoan duten erantzukizuna». Mahingurua LEKUA: Udaletzeko Pleno Aretoa
ORDUA: Arratsaldeko 7,00

• INGURUGIROAREN ALDEKO

MINGE KONTSUMERISTA

Seminario gisa
Formazio teoriko / praktikozko hamasei orduz osatua dago
NOIZ? NON? Eibarren, azaroaren erdialdera
ZEINEK ANTOLATZEN DU?: Eibarko Udalak, bere Euskara eta Ingurugiroko Departamentuen bitartez, eta EROSKI Kontsumo kooperatibak.
Mintegi hau EUSKARAZ izango da
ZIURTAGIRI bat emango zaie bertara joaten direnei.

NORK

ZER

• Koordinatzailea

Fernando Muniozguren

• Erredakzio-taldea

Ana Aizpurua
Idoia Arrillaga
Mireia Ugarteburu
Idoia Irazola
Fernando Muniozguren
Joseba Zinkunegi

• Argazkilariak

Mikel Gorosabel
José Valderrey

• Maketazioa

José Valderrey

• Komikia

Ander Gisasola

• Inprimaketa

Antza